

BALEIKE

261. ZENBAKIA, EURO BAT
2017ko URTARRILA

www.baleike.eus



Hogetik gora urte Basurtuko eta Gurutzetako erietxeetako gerente izan eta gero, gaur egun Bilboko Udal Gobernuan ardura garrantzitsuak ditu Mikel Alvarezek.

ZUMAIAR BAT BILBOKO GORTEAN



HH • 2 urtetik aurrera
Tel: 943 86 10 37
012972aa@hezkuntza.net



LH
Tel: 943 86 16 93
012972aa@hezkuntza.net



DBH / ZIG / BATXILERGOA
/ GOI MAILAKO ZIKLOA
Tel: 943 86 08 09
idazkaritza@zumaiaabhi.eus
zuzendaritza@zumaiaabhi.eus

Bide ziurretik... noranahi!

- Herriarena eta Herriarentzat; eskaintza bateratu eta zabala.
- Zumaiaiko sare sozialik handiena.
- Euskalduna eta eleanitza.
- Familien beharrei erantzun zuzena: jangela, beka...
- Ikasle bakoitzari bere ibilbidean lagunduko dion hezitzaile taldea.

ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

ZUMAIAKO INSTITUTUA



Gorka Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odrizola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Iosu Alberdi, Jabi

Gonzalez Toston, Izaskun Urbieta eta Gorka

Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

8

baleike +

“HERRITARRARI EZ ZAIO EZER EZKUTATU BEHAR, PARTE HARTU BEHAR DU ERABAKIETAN”

4

kirola
OLATUAREN
APARREAN

9

erretratua
I FORMULAKO AUTO
ONENAREN BILA

24

erreportajea
MULTINAZIONALETAN
ERE EUSKARAK LEKUA
BADUELAKO

30

baleike
KAZETARIA BEHAR DA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Olatuaren aparrean

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON
ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Ez da aparteko sekretua olatuak direla Itzurungo hondartzaren erakargarri nagusietako bat, flyscharekin batera, noski. Udako ur epelean zein neguko ur hotzean, beti egoten da baten bat uretan olatu horiek harrapatu eta bere trebeziak erakutsi nahian. Horretan aurkituko ditugun zumaier surflarien artean Imanol Yeregi eta Janire Gonzalez Etxabarri ditugu. Txiki-txikitatik aritzen dira biak olatuak hartu eta ohol gainean zutitzen. Espainiako txapeldun izatera ere heldu dira biak.



Janirek 11 urte ditu, eta harrigarria badirudi ere, nahiko esperientzia du dagoeneko taula gainean. Izan ere, 5 urte zituela hasi zen surfean! Kontatu digunez, hondartzan asko asperitzen zenez, lagun batekin ZISKE Zumaiako Surf Eskolako klaseetan izena eman zuen. Esperientzia izugarri gustatu zitzaion, eta olatu luze horretan jarraitzen du oraindik, taulatik jaitsi gabe. Imanol ere antzeko adinean hasi zen taula gainean, aitak bultzatuta: “5 edo 6 urte nituela eguna hondartzan pasatzen genuen, eta aita surflaria izan zenez, hark erakutsi zidan hasieran”.

Biek asko disfrutatzen dute surfarekin, jende asko ezagutu dute eta lagun asko egin dituzte olatuz olatu, baina badaude horrenbeste gustatzen ez zaizkien gauza batzuk ere. Janirek, esaterako, gorroto du traje bustia jantzi behar izatea. Imanol Janire baino 10 urte zaharragoa da, eta bilakaera nabarmena izan du surfarekiko motibazioan: hasieran lagun artean egiten zuen zerbait izatetik, bizitzeko modu batera igaro da surfa. Bidaia asko egin ditu surfari esker, munduko hainbat bazter ezagutu ditu, leku horietako olatuetan surf egin eta kultura ezberdinetatik ikasi du.

Sarritan klaseak amaitzean korrika eta presaka ateratzen dira uretara sartu ahal izateko, denbora laburrerako bada ere

Itzurungo olatuetan hasi gara surfean, baina Zarauzkoak ere aipatu egin beharko ditugu; izan ere, Zarautzen egiten dituzte entrenamenduak batak zein besteak. Jendeak adarra jo izan die horregatik, herritik mugitzeagatik, nora eta Zarautzera. Surfean aurrera egiteko baldintza hobeak dituzte han eta entrenatzailea ere han dute. Astean 3 edo 4 entrenamendu izaten ditu bakoitzak normalean, itsasoaren arabera. Indarra lantzeko ariketak eta uretan egitekoak izaten dira. Biak ikasleak izanda (6. mailan dago Janire eta unibertsitatean Imanol), ahal bezala moldatu behar dute entrenamenduak ikasketekin uztartzeko. Sarritan klaseak amaitzean korrika eta presaka ateratzen dira uretara sartu ahal izateko, denbora laburrerako bada ere. Orain neguan azkar iluntzen du, eta ez dago beste aukerarik.

14 urte zituela hasi zen Imanol Europa mailan lehiatzen, junior mailan. Konpetizioan igaro dituen urteetan, mailak duen exigentzia ezagutzeko aukera izan du. Bere esanetan, gero eta altuagoa da exigentzia hori, eta horren adibide da junior maila 20 urtetik 18ra jaitea. Aldaketarekin, marke surflariak lehenago baztertzea bilatzen dute gazteengan presioa handiagotuz. Nahiko kritikoa da Imanol horrekin, gazte askok barnean duten surfa 20 urteak bete ondoren garatzen dutela uste duelako. Imanol orain momentu onean dago, baina gazteagoa zenean, bere lehiakideak baino txikiagoa zenez, indarra falta zitzaiola onartzen du.

Janireri dagokionez, berak ere eragozpen fisikoak izan ditu. Neska zaharragoen aurka lehiatu behar izan du beti. Neska surflari gutxi dagoenez, kategoriak murriztu behar izaten dituzte hainbat txapelketatan, eta gazteenetako bat denez, beti zaharragoen aurka aritu behar du. Horrek ez du inoiz kildu, ordea, eta horixe islatzen dute irabazi dituen txapelketek. Garaipen horiei erreferentzia eginez, zaharragoen aurka irabaztearen sentsazioa “kristorena” dela dio gaztetxoak. Igaro dira 2 edo 3 urte bera ere txapelketetan parte hartzen hasi zenetik.

Ikus daitekeenez, neska surflarien egoera ez da nahi bezalakoa. Kirol askotan neskek oztopo asko aurkitzen dituzte bidean eta surfa ez da salbuespena. Neska surflariak babesteko orduan, babesleek gehiago begiratzen diote itxura fisikoari haien ohol gaineko trebeziari baino. Horren adibide garbiena argitaratzen dituzten argazkiak dira. Askoz argazki gehiagotan aurkituko ditugu neska surflariak bikini “sexyekin” posatzen surf egiten baina. Horrek ez dio motibazioa kentzen Janireri, ordea, eta aurrera jarraitu nahi du bere ametsa lortzeko: emakumezkoen maila gorenera heltzea. Baina aurretik argi du zein den hurrengo helburua: “Espainiako txapeldun izan nahi dut 18 urtez azpikoan mailan”.

Orain momentu onean badago ere (Euskal Herriko zirkuitua irabazi berri du), urte gogorra izan da 2016 Ima-



Izen-abizenak: Janire Gonzalez Etxabbarri Lazkano

Jaiotze data: 2005/03/03

Palmaresa: Espainiako txapelduna 14 urtez azpikoan mailan

Babesleak: Roxy, Piratex eta STW fins

Entrenatzailea: Jose Nuño eta Ibon Amatriain

Surflari gogokoena: Carissa Moore eta Aritz

Aranburu

Surf egiteko olatu gogokoena: Orroaga

Beste hobbyrik: Familiarekin denbora pasatzea

Imanol Janire baina 10 urte zaharragoa da, eta bilakaera nabarmena izan du surfarekiko motibazioan



nolentzat. 2015eko neguan apendizitisak hilabetez geldirik eduki zuen, errekueratu eta bi hilabetera hesteetako beste arazo batek gutxi gorabehera 6 hilabetez uretatik kanpo eduki zuen. Asko ikasi du bizitako esperientziak. Duguna baloratzen bereziki, “beti nahi izaten dugu daukaguna baino gehiago, urrunago heldu, baina, askotan, dugunarekin nahikoa da. Orain ondo egotearekin konformatzen naiz”. Galizian egon zen ospitalean, bertan igarotako denboran lagun bat egin zuen, gerora hil egin zena. Orain, txapelketetan emaitza onak lortzen dituenen, gehiago baloratzen ditu, lagunak eta momentu txarrez gogoratzen baita.

Imanolek ikasi du nolakoa den txapelketen eta marken mundua eta lasai hartzen du etorkizuna. Momentuz Punta Galeara (Bizkaia) joango da, txapelketa bat lehiatzera. Gontza jaso zuen duela gutxi eta gogo handiz ekingo dio. Mundu mailan, bigarren mailako proba bat da, olatu handiak izaten dituen. Aitortu du horrek asko motibatzen duela, eta ondo egiteko gogo handiz dago, salto garrantzitsua emateko aukera aparta baita. Halere, mutilen maila gorenera igotzea ezinezkoa ikusten du dagoen maila handiarengatik. Baina, esan bezala, duenarekin konforme da.

Gomendio moduan, zerbait eskatu nahi izan dio Imanol Janireri: lagunak egiten eta surfarekin gozaten jarraitzea, alegia. Surf asko duela ikusten du eta ez du nahi motibazioa galtzea. ■



GORKA ZABALETA

Izen-abizenak: Imanol Yeregi Sasiain
Jaiotze data: 1995/11/06
Palmaresa: Euskadiko txapeldun, Espainiako txapeldun (open mailan eta 18 urte azpikoetan), eta Europar laugarren
Babesleak: Patagonia, Pukas eta Arnette
Entrenatzailea: Jose Nuño
Surflari gogokoena: Aritz Aranburu
Surf egiteko olatu gogokoena: Izustarri
Beste hobbyrik: Olagarroak harrapatzea



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak




AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera

Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 861 280

LIBRURU DENDA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261




Amama taberna

tel: 943 543 164
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com



Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel. 943 862 532 Tel.: 943 861 631


ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA Artxupe

Nazkari 2 • Tel. 943 801 001
ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti

ARROPA DENDA



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantente mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

Sari Isidro, 25 • tel./faxa 943 148 306
20749 Arroa bakun@ouskainet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitorio
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Golez: 11-13 / Arrabaldok: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itabi
Lantekidetsako: 605 728 737 Etkez ebeko zerbitzua



BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxika Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia Kafeategia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Gaizka **SASIAIN** | AERODINAMIKA INGENIARIA

I Formulako aerodinamika ingeniaria da Gaizka Sasiain. Caterham eta Lotus taldeetatik pasa eta gero, 2015eko arazotik McLaren taldean ari da lanean. Hain eksklusiboa den munduan lekua nola lortu duen kontatu digu, Gabonetako oporrak Zumaian egin dituela aprobetxatuta.

ERRETRATUA

TESTUA: GORKA ZABALETA

I Formulako
auto onenaren bila



Gaizka Sasiain emaztearekin eta semearekin bizi da Wokingen.

Gaizka Sasiaini (Zumaia, 1982) betidanik gustatu izan zaizkio karreretako autoak. Gogoan ditu aitak lan bidaietatik ekartzen zizkion 1 Formulako autoen miniaturak. “Gorria eta zuria zen bat (Marlboro), 1980ko hamarkadako McLaren-Honda autoa; eta banuen beste bat, 1990eko hamarkadakoa, Williams-Renault urdin eta horia”. Scalextricarekin ere jolasten zuen tarteka, lehengusuak baserrian biltzen zirenean. Baina ordenagailuek ere beti erakarri izan dute, eta gaztaroan ikasketak aukeratzeko tenorea iritsi zitzaionean, telekomunikazioen alde egin zuen apustu. Hiru urte egin zituen Ikerlanen, Arrasaten, baina buruan bazebilkien galdera bat bueltaka: “Hau al da bizitza osoan egin nahi dudana?”. Erraz aurkitu zuen erantzuna. Garai hartan, Mondragon Unibertsitateak eta Epsilon Euskadi taldeak urtebeteko masterra jarri zuten martxan, eta han ikusi zuen aukera. Epsilonek Miñao (Gasteiz) zabaldutako lantokian egin zuen urtebetean aerodinamikan espezializatu zen. Eta, titulua besapean, lan bila hasi zen.

Alemanian eman zioten lehen aukera. “Holzer enpresatik deitu zidaten, nire curriculumean interesatuta. Baina hara joan nintzenean, ohartu nintzen beste profil bateko norbait behar zutela. Pixka bat zapuztuta gelditu nintzen, baina, zorionez, beraien bitartez lortu nuen niretzat egokia zen lanpostua beste enpresa batean, Alemanian bertan”. SCE Solutions-ek eskaini zion lehen kontratua, eta, bi aldiz pentsatu gabe, Munichera joan zen bizitzera, 2012aren hasieran. Lantokiak ez zuen zerikusirik 1 Formularen glamourarekin, baina han bizitako esperientzien oroitzapen ona du Sasiainek. “Lantokia soto bat zen, eta hasieran zazpi edo zortzi langile baino ez ginen. 1 Formulako taldeei aholkuak ematea zen gure lana.

Esperientzia oso ona izan zen, ikasteko lekurik egokiena zen, denetarik egin behar genuelako”. Lehen urtean HRT taldearentzat egin zuen lan, eta bigarrenean Toro Rossorentzat.

Alemanian bi urte egin eta gero, 1 Formulako talde batean sartzeko aukera iritsi zitzaion Ingalaterratik. “Caterham taldeak eskaini zidan kontratua. Jauzi handia zen, enpresa handiagoa zen, 300 langile ingurukoa. SCEn neu nintzen aerodinamikako arduraduna, formula matematikoak lantzen zituen. Caterhamen aerodinamika diseinatzeko hasi nintzen, beste ingeniari batzuek landutako formulei forma ematen, ordenagailuan hiru dimentsiotako programak erabilia”.

Baina Caterham-en proiektuak ez zuen gehiegi iraun. 2014ko otsailean sartu zen Gaizka taldean eta urte bereko azaroan itxi zuten enpresa. Bat-batean, kalean gelditu ziren 1 Formulako 300 langile. “Pentsa dezakezuenetz, 1 Formularen ez zegoen lana guztiontzat. Lan bila joan eta baldintza oso eskasak eskaintzen zizkiguten, gure egoeraz aprobetxatuta. Erabaki nuen itxarotea, eta nire kabuz hasi nintzen lanean, aholkulari”. Eta lehen lana non sortuko? Alemanian. “Ordurako emaztea eta semea Ingalaterran zeuden nirekin, etxe egokia aurkitu genuen eta oso eroso geunden. Familia Ingalaterran utzi eta Alemaniara neu bakarrik joan nintzen, Stuttgartera, Mercedesentzat lan egitera”. Zorionez, bi hilabete baino ez zituen egin etxetik kanpo. “Lotus taldeak lana eskaini zidan, eta etxera bueltatu nintzen. Aukera ederra zen: talde historikoa eta etxe ondoan”.

Lanean hasi orduko konturatu zen, ordea, gauzak ez zihozazela ondo Lotusen. “Kanpora begira marketin lan handia egin zuten, enpresa berrindartuta zegoela saldu zuten babesle berriak erakartzeko, baina guk barruan kontrakoa sufritu

Oxford, 1 Formularen hiriburu

Unibertsitateak eman dio mundu mailako sona Oxford (Ingalaterra) hiriri, baina 1 Formulako erdigune ere izenda daiteke hanka sartzeko beldurrik gabe. Ferrari (Italia) eta Sauber (Suitza) kenduta, Oxford inguruan bildu dira 1 Formulako taldeak: Renault (lehen Lotus) Enston-en; Williams, Oxford hegoaldean; Toro Rosso, Bicesterren (Oxford iparraldean); Manor, (lehen Virgin eta Marussia) Vanbury-n; Red Bull Milton Keynes-en, Mercedes Brackley-n (Oxford eta Bicester artean); McLaren pixka bat urrutirago dago, Woking-en, Londrestik ordu erdira trenetz.

genuen”. Soldatak beti atzerapenez kobratzen zituzten eta, halako batean, langileak kanporatzen hasi ziren. “Ni segituan akordatu nintzen Caterhamen gertatutakoaz, eta ez nuen berriro lanik gabe gelditu nahi. Lan bila hasi nintzen nire kabuz”. Baita lortu ere, non eta McLarenen. “Zortea izan nuen, Lotusen ez nituelako sei hilabete osatu. 1 Formulan, lehen sei hilabeteak probakoak dira. Behin seigarrena pasatzen duzunean, kontratua aldatu egiten da. Lan baldintzak hobeak dira, noski, baina konfidentziasun klausula asko sartzen dira indarrean. Eta horietako batek dio sei hilabete-ko aurrerapenez jakinarazi behar diozula enpresari kontratua etetera zoazela. Nik bost hilabete neramatzan Lotusen; beraz, ez nuen oztopo hori izan, eta ia egun batetik bestera hasi nintzen lanean McLarenen”.

2015eko azaroan iritsi zen McLarenena, eta han jarraitzen du orduz geroztik, aerodinamika kontuekin. “Lan berbera egiten dut, baina askoz zehatzagoa. Caterhamen edo Lotusen auto osoaren aerodinamikan egiten nuen lan; McLarenen, berriz, zati jakin batzuen ardura daukat”. Zehazki, aurreko gurpileko suspentsioan eta galgetan egiten du lan. “1 Formularako 900 langile dauzka McLarenek; eta beste bi atalak [McLaren Automotive eta McLaren Applied] kontuan hartuta, guztira 3.000 inguru gara enpresan”. Eta denek egiten dute lan Norman Foster arkitekto ezagunak propio diseinatutako eraikinean. “Eraikin ikusgarria da: forma biribila dauka, Ying-a eta Yang-a irudikatzen du; laku bat dauka albo batean, auto txapeldunen bulebar moduko bat, espazioak oso irekiak dira... Ederra da”. Lur azpian dagoen solairuan dago autoak egiteko fabrika; zero solairuan, marketin ekintzak antolatzen dituzte babesleekin; eta ingeniari-tza bulegoak, Gai-zkaren lantokia, lehen solairuan daude.

Punta-puntako azpiegitura, eta garaipenez jositako palmaresa: Watson, Lauda, Prost, Senna, Hakkinen, Raikkonen eta Hamilton txapeldun izan dira McLarenekin. Ferrari, Mercedes eta Red Bull-ekin batera, txapelketako handien artean dago taldea. Baina emaitzak ez dira batere onak izan



Sasiain Fernando Alonsorekin.

azken urteetan. “Presio hori geuk ere nabaritzen dugu. Talde irabazlea da McLaren, eta edozerk ez du balio. Goi mailako beste taldeen aldean, badaukagu berezitasun bat; motorrak ez ditugu geuk egiten, Hondak egiten ditu. Eta bi enpresen lana bateratzeko orduan zailtasunak egon dira orain arte”. Arrakastaren sekretua motorra eta aerodinamika ondo uztartzean datza, Sasiainek esplikatu duenez. “Bien arteko oreka onena lortzen duenak izango du autorik onena”. Motorra eta txasisa, biak ex-bera egitea, abantaila dirudi hasieran. “Motorraren ezaugarriak lehen unetik ezagutuko ditu aerodinamika landu behar duen taldeak, eta alderantziz. Elkarlan estua egon daiteke uneoro, emaitzarik onena lortzeko. McLaren eta Hondaren artean, orain arte, ez dute horrela funtzionatu. Hondak Japonian dauka bere lantokia eta McLarenek Ingalaterran. Gure ingeniari zuzendari batek hilean bi aste pasatzen ditu Japonian, baina ez da modurik egokiena. Zorionez, ohartu dira arazoaz eta Hondak lantoki bat zabaldu du Ingalaterran, elkarlan hori zuzenagoa izan dadin”.

Aerodinamikaren sekretuak

Aerodinamikaren ikuspegitik, 1 Formulak badu berezko zailtasun bat: gurpilak bistan doaz, ez doaz txasisaren barruan babestuta. Horrek arazo asko sortzen omen ditu aerodinamikaren ikuspegitik. “Aerodinamikaren helburua da aireari abiadura ematea eta energia hori baliatzea, xurgatze indarrak autoari zoruairen kontra eragiteko; horrela lortzen da estabilitatea areagotzea, eta bihurguneetan azkarrago joan ahal izatea. Ba, gurpilak bistan daudenez, berez hutsune moduko bat sortzen da gurpilen inguruan, energia baxuko gunea, eta aerodinamika hausten da”.



McLarenen instalazioak Wokingen.
Bertan egiten du lan Gaizka Sasiainek.

Aerodinamikaren bidez zenbat eta estabilitate handiagoa eman autoari, orduan eta azkarrago joan ahal izango da bihurtzetan. Baina horrek badu bere alde negatiboa: erresistentzia handiagoa sortzen da airearen kontra, autoa gehiago frenatzen du zuzenguneetan azkar doanean. Eta hor motorraren indarra sartzen da jokoan. “Autorik azkarrena lortzeko biak hartu behar dira kontuan, motorraren indarra eta aerodinamikako diseinua, motorrak zenbat bultzatzen duen aurrerantz eta aireak zenbat atzerantz. Joan zaitezke bihurtzetan oso azkar karga aerodinamikoak estabilitate handia ematen diolako autoari, baina horrek gero zure kontra jokatu du zuzenguneetan, aireak nahi baino gehiago frenatuko duelako. Oreka horretan asmatzen duenak irabaziko du. Eta erabaki egin behar da apustua non egin, dena ez baita posible”.

Brexitaren shocka

Sasiain gustura dago McLarenen, lan ordutegiak askotan nahi baino gehiago luzatzen zaizkion arren. “Badakit goizeko zortziak aldera hasten naizela lanean baina inoiz ez dakit noiz amaituko dudan. Normalean, iluntzeko zortziak jota iristen naiz etxera, eta tarteka gelditu behar izaten gara lan jakin batzuk bukatu arte”. Baina azken hilabeteotan badabil-

ki buruan aurreikusten ez zuen kezka bat: *brexita* (Erresuma Batuak Europako Batasunetik ateratzeko hartutako erabakia, erreferendum bidez). “Bezperan ohera joan nintzenean, inkestak begiratu nituen eta Europako Batasunean mantentzearen aldekoa zen emaitza. Goizean jaiki eta Interneten ikusi nuenean *brexitak* irabazi zuela, *shocka* izan zen niretzat. Ez nuen inondik inora espero”.

Lantokian eta bizi diren herrian (Woking) ez du jarrera arrarorik sumatu, baina ez dago lasai gaiak izan dezakeen bilakaerarekin. “Emaztea peruarra da eta Ingalaterran bizitzeko baimena dauka ni Europako Batasuneko hiritarra naizelako. Baina *brexitarekin* ez dakigu hori aldatu egingo den. Eta beste kezka ekonomikoa da. Ikusi beharko dugu zer gertatzen den, baina agian etorkizunean seguruago egongo gara Alemanian”. Dena den, Sasiainen iritziz, kezkarriena ez da Erresuma Batua Europatik ateratzea: “Errespetagarria da beraien burujabetasuna defenditu nahi izatea; okerrera da *brexitaren* aldeko botoa xenofobian oinarritu dela, kanpaina guztia hala bideratu zen”.

Etorkizuna argitu bitartean, Fernando Alonso eta Jenson Button gidarientzat ahalik eta autorik azkarrena lortzeko ahalginean bere alea jartzen jarraituko du Gaizka Sasiainek. ■



ORAIN EKONOMIA

Ekonomia *Suspertzeko Plana*

200 milioiko inbertsioa gure enpresetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€
2015 > 2019**

Industria
Lehen Sektorea
Gizarteratzea
Kultura eta Turismoa

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurtrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantziartzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

BEEP

DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

FLYSCH UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 63 97

Galdona



burdindegia

Mondaroz murrerela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 300

Ganbarara

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kala

Tel. 943862181

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheha
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

“Herritarrari ez zaio ezer ezkutatu behar, parte hartu behar du erabakietan”

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Medikua formazioz, aurrena Basurtu eta gero Gurutzetako erietxeetako gerente izan zen Mikel Alvarez Yeregi (Zumaia, 1955) 20 urtez, eta beste sei urtez osasungintzako arloaren arduradun Mondragonen kooperatiben taldean. Gaur egun, Alkatetza, Garapen Ekonomikoa eta Gobernu Ona sailak zuzentzen ditu Bilboko Udalean. Bere bulegoan hartu gaitu, Bilboko bandera zuri-gorria paparrean eta Zumaiako euskara ahoan. Kazetariak galderarik egin gabe, Itzurungo labarretatik hasi du berriketaldia.



“Itzurungo paretan horiek hain dira ederrak... Umetako kontu asko ekartzen dizkirate gogora. Nik urte asko daramatzat herritik kanpo, baina galdetzen didatenean nongoa naizen, nik ez daukat zalantzarik: ‘Ni? Zumaiarra’. Pertsonaren izatea umetan eraikitzen da. Gero, bizitzea da. Umetako gogoeta batzuk egiazkoak dira eta beste batzuk eraiki egiten ditugu eta egiaztat ematen ditugu, baina horiek dira nortasunaren zutabeak. Eta ni zumaiarra sentitzen naiz.

Paolbidea da nire umetako paisaia. Lehen, Arranplatik itsasoa ikusten zen. Orain ez, itxi egin dugu. Lo nagoenean oraindik askotan errepikatzen zait amets bat: itsasoak salto egiten du TalaiPETIK eta gure etxeraino etortzen da, yeregitarren etxeraino. Eta bestea da Zubiaundian, han erori egiten naiz erriora... Umetako oroitzapen horiek oso fisikoak dira. Bate-lak, arrauna, marea gora eta behera...

Exte txiki bat daukat Busturian, Sukarrietan; batel bat badaukat eta gustatzen zait arraunera irtetea. Ur erzteko kultura hori. Harraldean ere asko

ibiltzen ginen; orain gehiago jotzen dut mendialdera. Baina ezkondu ere Elorriagako ermitan ezkondu nintzen [debarra du emaztea]... Zumaiaetik Elorriagako bidea askotan egiten nuen aitarekin, igandetan. Zumaia, niretzat, barruan daramadan geografia inportanteena da. Leku horiek. Yeregitarren fabrika [Moilaberriko estazioaren atzean zegoen]. Aita

bisitatzera joaten nintzenean. Aitonaren kotxe zaharrarekin akordutzen naiz, Citroen bat, manibelarekin arrankatzen zen haietakoak. Beltza. Gangsterren tankerakoa, 1930eko hamarkadakoa. Akordutzen naiz tailerraren barruan zarata handia egoten zela, eta tailerraren kanpoan ur putzu handi bat egoten zen. Askotan joaten nintzen karburu bila, anaiak karburua behar zuelako kandilerako, gero gabarrantzara joateko. Akordutzen naiz karburua hartu eta beti pixka bat botatzen nuela putzura, hark egiten zuen erreakzioarekin jolasean [gasa ateratzen du]. Horiek dira umetako oroitzapenak.

“Lo nagoenean oraindik askotan errepikatzen zait amets bat: itsasoak salto egiten du TalaiPETIK eta gure etxeraino etortzen da, yeregitarren etxeraino”

Bistan da Zumaia oso barruan sartuta daukazula, baina ume bat zinela atera zinen herritik...

Zumaiatik oso gazte atera nintzen, bai, hamar urterekin. Seminarista joan nintzen Oñatira, agustindarregana. Nik Mmrtzedarioetan ikasten nuen orduan, eta etorri ziren Oñatitik bi abade gazte, ea norbaitek seminariora joan nahi ote zuen, eta nik izena eman nuen. Baneukan erlijioarekin tentazio bat. Batxilergoa Oñatin egin nuen eta COU Donostian. Eta 17 urterekin Bilbora joan nintzen, medikuntza ikastera.

Bilbora ikastera joan ziren garai hartan, euskarazko aldizkari batean aritu omen zinen lanean. Nola izan zen hura?

Euskararekiko eta euskal kulturarekiko beti izan dut harra barruan. Hizkuntza asko gustatu izan zait eta euskal literaturak bete egiten nau. Bilbon ikasketak egiten ari nintzen garaian, *Anaitasuna*ren mundura hurbildu nintzen, militantziaz bultzatuta. *Anaitasuna* frantziskotarren aldizkaria zen, baina Iker taldeari saldu zioten. Iker taldeak, besteak beste, liburuak argitaratzen zituen ikastoletarako, eta *Anaitasuna* al-

dizkaria ere argitaratzen zuen. Nik 21 urte neuzkan orduan, eta kudeaketaz arduratzeko eskatu zidaten. Baina denetarik egin nuen. Editoriala idatzi behar bazen, ba, hura ere idatzen nuen. Xabier Kintanak laguntzen zidan asko, Jose Ramon Etxeberria ere han zen Iker talderako argitalpenak egiten, eta Imanol Berriatua ere orduan ezagutu nuen. Hura niretzat mundu oso aberatsa zen, ni baino zaharragoak ziren haiek denak. Beti esaten dut Kintanarekin asko ikasi nuela hizkuntzaz. Urte eta erdi egon nintzen, buru-belarri sartuta. Karrerari kasu gutxi egin nion, nire zereginak albo batera utzi nituen bolada hartan, eta aitak errieta pixka bat egin eta bueltatu nintzen medikuntza ikastera. Baina beti izan dut hizkuntzarekiko interesa. Gabriel Arestiren lana goitik behera irakurri dut. Euskal literatura asko irakurtzen nuen garai hartan. Orain gutxiago.

“Euskararekiko eta euskal kulturarekiko beti izan dut harra barruan. Hizkuntza asko gustatu izan zait eta euskal literaturak bete egiten nau”

Medikuntzako ikasketak amaitu zenituen, baina zure ibilbide profesionalean gehiago izan zara kudeatzaile mediku baino...

Mikrobiologiako espezialitatea ikasi nuen Basurtuko ospita-

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com
Tel. 943 865100
Talasoaaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era
Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia
Zelai
ZUMAIA

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solnu eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK



Angelu Soratu, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
jagetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basodri auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

KABI Patxita Etxezarreta, 16
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

Kresala
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

Txapelakin Angel Osa (Mikelen osaba), Santi Osa (Angelen anaia), Josu Atxurra (bere besoetan, Mikel), Inaxio Alvarez, Mikelen aita.



lean (Bilbo) eta bertan atera nuen mediku plaza. Zortzi bat urte egin nituen Basurtun mediku. Elgetan ere egon nintzen denbora pixka bat, Laudion, Ezkerraldean... Baina bai, gero kudeaketa lanetan hasi nintzen, Basurtun eta Gurutzetan (Barakaldo). Bietan gerentea izan nintzen. Guztira, 20 bat urte aritu naiz osasun arloan kudeatzaile.

Kooperatiben munduan ere izan zinen bolada batez. Nolako esperientzia izan zen?

Sozialistak Jaurlaritzako agintera iritsi zirenean, nik ez nuen haiekin Gurutzetan segitzeko gogorik. Ni kudeatzailea naiz, baina nire ildo politikoa garbi dago eta banekien lehenago edo geroago kargutik kenduko nindutela.

Baina Gurutzetako ospitaleko gerentearen postua politikaren arabera aukeratzeko al da?

Gurutzetako kudeatzailea lepotik gora politikoa da, baina lepotik behera ez. Pisu handiena kudeaketak du, baina normalean politikariek nahiago izaten dute soka bereko norbait eduki. Orduko sailburuak eskatu zidan gelditzeko, baina nik ez nuen nahi. Aukera eman zidaten Mondragonen eta sei urtez han ibili nintzen. Arazo handia izan genuen Fagorren krisiarekin eta baliabideak asko urritu ziren. Horrek ez zigun aukerarik eman proiektu asko garatzeko, baina oso urte onak izan ziren. Asko ikasi nuen han eta oso ondo tratatu ninduten. Kooperatiben proiektua oso sendoa da, oso solidarioa, bere kontraesanak badituen arren.

Eta orain, zer egiten du zumaia batek Bilboko Udala gobernatzen?

Zer egiten dudana? Lan asko. Alkateak eskatu zidan etortzeko. Ni kudeatzailea naiz, eta hori da nire ekarpena. Ni medikua naiz, eta, oraindik, galdetzen badidate, medikua naizela erantzuten dut. Baina nire mediku ikuspegia soziologiko-filosofikoa da, gizarte zaintzailatzat definitzen dut neure burua, eta horretarako gestioa daukat ofizio eginda.

Eta zer erronka dauka Bilbok?

Bilbok oraindik tarte handia dauka garatzeko. XIX. mendean aberastu egin zen burdinarekin, eta XX. mendean hazkuntza ikaragarria izan zuen: 20.000 biztanletik 400.000ra pasa zen mende batean. Baina momentu batean, Egiptoko izurriteak bezala, gaitz guztiak etorri ziren Bilbora segidan. Aurrena, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, burdinari lotutako fabrikak itxi egin ziren. Horri gehitu 1983ko uhalak. Bilbo birrintuta zegoen une haietan, burua ezin altxatuz. Eta beste izurritea ere ezin ahaztu, indarkeriarena, eta ez dut alde bat edo bestea bereizi nahi. Eta, orduan, Euskal Herrian egon zen borondate nazional bat Bilbo salbatzeko. Apustu handiak egin ziren Bilboren alde. Donostiak ez dauka horrenbesteren beharrik. Donostiak ez ditu Isozakiren dorreak behar ederra izateko. Ederra da berez.

“Apustu handiak egin ziren Bilboren alde. Donostiak ez dauka horrenbesteren beharrik. Donostiak ez ditu Isozakiren dorreak behar ederra izateko”



Galdona

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^o Kortu Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

Guggenheim efektuaz ari zara...

Guggenheim baino gehiago egin da. Bilbok burua altxatzeko egin zen lehen aldaketa urbanistikoa eta garraio bideena izan zen. Urbanistikoki gaur egun ondo dago Bilbo, oraindik ere zeregin batzuk badituen arren, batik bat maldan dauden auzoetan. Baina Bilbok oraindik beste gauza bat dauka pendiente. Portua kanpora atera da eta Zorrozaurren gelditu den espazioan Bilbo berri bat sortuko da. Hori egiteko dago. Eta batez ere pendiente dagoena da Bilbok bere ehun produktibo berria sortzea. Burdina atzean gelditu zen, baina ez daukagu industria berririk. Bilbon langabezia tasa oso altua daukagu, % 17,4koa. Donostian % 10ekoa da. Zergatik? Erori zirelako industria guztiak eta oraindik ez garelako gai izan ekonomia berri bat sortzeko. Bilbok demografia zaharra dauka eta biztanleak galtzen ari da. Beno, badakigu Bilbo dela munduko kapitala, Doña Casildako parkea Central Park baino ederragoa dela eta hango ahateak dibinoak direla... Baina etorkizuneko hiria izateko oraindik lan asko dauzkagu egiteko. Aukerak ere bai.

Bilboko Udalean, eguneroko lanean, euskara zenbat erabiltzen da?

Asko aldatu da legealdi honetan. Alkatea [Juan Mari Aburto] oso euskaltzalea da, Bilbok izan duen lehen alkate euskalduna. Nik alkatearekin dena euskaraz egiten dut, idazkariarekin ere bai, giza baliabideeno zuzendariarekin ere euskaraz. Askoz gehiago hitz egiten da orain euskaraz Udalean. Baina idatzizko komunikazioan oraindik ez. Hor badugu tarte handi bat hobetzeko.

Eta kalean? Bilbo omen da euskaldun gehien dagoen hiria, baina Bilbon bizi al daiteke soilik euskaraz?

Ez da erraza. Oraindik mugako hiri bat da. Jendea asko etorri zen kanpotik industriak erakarrita, eta orain ere etortzen dira. Baina gauzak ari dira aldatzen. Ikasle garaian ezagutu nuen erizain batek kontatzen du pasadizo argigarri bat: 1960ko hamarkadan, Basurtun ikasketak egiten ari zela, egokitu zitzaion gau batean umeak zaintzea. Beti kontatzen du nola gau hartan ume bat zegoen negar batean, “ure, ure!” oihukatuz. Erizainek ez zioten ulertzen. Orduan erdalduna zen bera, gaur egun euskaldun petoa da. Hori erabat aldatu da. Euskara ezagutzen dutenen ehunekoa handia da Bilbon, baina gutxi erabiltzen da. Jauzi hori ez dugu egin.

Zerbitzu publikoan egin duzu lan asko. Zein dira kudeaketa onaren printzipio oinarritzkoak?

Lehenik eta behin, herritarrengan pentsatu behar dugu, bere beharretan. Hori da enfokoa. Ez guk zer nahi dugun eskaini. Bigarrena gardentasuna da. Nahitaezkoa da...

Baina gardentasuna zer da?

Informazioa ematea eta parte hartzea. Hori hnahitaezkoa da. Ezin dugu ezer ezkutatu. Ez kontuak, ez estrategiak. Dena azaldu behar da. Konfiantza sortu behar da gardentasunaren bidetik, lidergoa edukitzeko. Herritarri ez zaio ezer ezkutatu behar, parte hartu behar du erabakietan.

Gero, zentzuzko gauzak egin behar ditugu, etxean bezala. Daukagun diruaren arabera, zorra sortu gabe. Inoiz egin behar da zorra etxebizitza erosteko, baina kudeaketa ekonomikoak zuhurra izan behar du.

Arantxa Urretabizkaia idazleak hau esan du Hondarribiko alardearen harira idatzi berri duen liburuaz egin dioten elkarrizketa batean: “Ezberdin pentsatzen dutenak automatikoki bihurtzen ditugu etsai herri honetan”. Zeu jeltzalea zara, anaia bat daukazu ezker abertzalekoa eta beste bat sozialista. Nola eraman duzue zuen arteko harremana?

Ondo eraman dugu, benetan ondo. Noizean behin, bazkalondoren, boza pixka bat igo egiten da; horrelakoetan, amak segituan ateratzen zuen erratza eta eztabaida moztzen zuen. Egunaren eta gaiaren arabera, bat edo bestea da okertzen dena. Arrazoia ez du beti batek izaten. Denok okertzen gara. Anaien artean ez dugu sekula arazorik izan. Eta hori gure aitari eskertu behar diogu. Oso tolerantea zen. Ikusgarria zen. Pazientzia handia zuen. Ikuspegi ezberdinak errespetatzen jakin behar dugu, erlijio aukerak errespetatu behar diren bezala. Eta oso zaila da. Guk uste dugu zerbait bagarela, baina aurreko udan Kaukaso aldean izan ginen andrea eta biok, mendi aldean, eta han eliza armeniarak, katolikoak, musulmanak, ortodoxoak... Denetarik dago. Guk uste dugu basapiztiak direla, baina bizikidetzan gu baino aurreratuagoak dira.

Bilbotik nola ikusten da Zumaia?

Nik Zumaia ondo ikusten dut. Badago hausnarketa bat egin beharra turismoaren inguruan. Sekula ez du izan hainbeste bisitari, beste garai batzuetan turismoa izan den arren. Turismoa, gaur egun, fenomeno soziologiko inportanteenatako bat da mundu mailan, ekonomiaren ikuspegitik. Baina izan daiteke, baita ere, txapapote bat, eta bertan ito daukagun nortasuna. Turismoa ona da bere neurrian, baina Bilboko alkateari beti galdetzen diot non dagoen gure muga. Turismoarekin ito gaitzeko eta nortasuna erabat galdu. Hori kontuan hartu behar da. Baina ni Zumaiaara joaten naizenean ondo bizitzeko leku bat ikusten dut, orain ere bai.

Zumaiaz galdetuta, Paolbidea etorri zaio berriro gogora, eta uda parteko pasadizoa kontatu du: “Abuztu bukaeran izan nintzenean, marea biziak egokitu ziren eta Itzurunen ez zegoen lekurik. Moila eta Paolbidea jendez gainezka zeuden, gazteak uretara salto egiten... Ezin izan nuen aguantatu. Anaiari bainu-jantzia eskatu eta han bainatu ginen biok”. Uda pasata, urri aldean, amarekin [abenduan zendu zitzaian ama] Itzurunera egindako bisitaz akordatu da, *Game of Thrones* telesailaren grabaketan aitzakiarekin. Hango mugimenduari begira zeudela, ezin San Telmo aldeko labarrei begirik kendu. –“Ama, nondik aterako dira herensugeak? Kobazuloetatik?” –“Nik hala uste dut, bai; kobazuloetatik aterako dira, Mikel”. ■

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943 860 484



CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

MARGARI *Iruta-denda*

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel: 943 861 691

Nikol
taberna

amaiaiko plaza 243561516



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEREN
OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura

678 875 652
643 143 093
lu@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA

www.olidenreformas.com

Faxadak
Telatutak
Etxebiztan
(Bakarkak, banagariak)
Industrian mantentze-lanak
Mota gutxiakoa igelberritze-lanak

Etxebiztan inspektio teknikoa (ITE)
Zerifikatu energetikoa
Faxaden diseinua eta aholkularitza
Etxebiztan berrantolaketa
Mota gutxiakoa proiektak



OSKARBI
KIROLAK

Aial Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Jose Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 08 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25
Julio Beceide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Primavera
pizzeria

943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (Kodilloak)
Saltzirak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Multinazionala etan ere euskarak lekua baduelako

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Gizarteko beste hainbat esparrutan bezala, euskarak indarra hartu nahi du lan munduan ere. Pixkanaka, euskal enpresak ari dira euskararen erabilera bultzatzeko planak indarrean jartzen. Horietako bat da GKN Driveline Zumaia, euskara plana duen multinazional bakarretakoa. Plan horren nondik norakoak jakiteaz gain, enpresaren gaur egungo egoera eta etorkizunera begira dituen asmoak jaso ditugu erreportaje honetan.





Euskararen Eguneko ekitaldia enpresan. Ezkerretik lehena: Iñigo Zaldua; bigarrena: Asier Arakistain; bosgarrena: Ianire Flores.

Elhuyar Aholkularitzak 25 urte euskara planetan ekitaldia egin zuen 2016ko azaroaren 16an, Donostiako Tabakaleran. Mende laurden honetan bidelagun izan dituzten erakunde, bezero, lankide eta kolaboratzaileen lana aitortu zuten, baita euskara planak dituzten enpresena ere. Horietakoa bat da GKN Driveline Zumaia.

“Nik uste esker on hori jaso genuela multinazional bateko kide garelako. Beste enpresak kooperatibak, bankuak eta halakoak dira, eta gurea da multinazionala den bakarretakoa”, azaldu digu Asier Arakistainek, enpresako Euskara Batzordeko kidea eta Elhuyarren ekitaldi hartan, enpresaren ordezkari, aipamena jaso zuen langilea. Ianire Flores ere Euskara Batzordeko kidea da eta Asier eta biak elkartu ditugu Euskara Planari buruz hitz egiteko.

GKN Driveline Zumaia izena du gaur egun lehen Ayra Durex zenak. Eibarren 1940. urtean sortutakoa, Armas y Recambios de Automoviles dago Ayra horren atzean. Urteekin aldaketa handiak izan ditu: armagintza aspaldi utzi zuen atzean eta gaur egun automoziorako transmisioak egiten ditu. Zumaia oraingoa 35 bat urte mugitu zen, eta une honetan 402 langile ditu Jadarre aurreko faktorian. 1996. urtetik GKN da enpresaren jabe bakarra.

“Hasieratik garbi utzi zen ez zela hizkuntza bat kendu eta bestea jarriko. Hala, pausoak ematen joan gara hamaika urte hauetan”

2005. urtean sortu zen enpresan euskara gehiago sustatzeko ideia. “Eskaera hori betidanik egon zen enpresan”, adierazi du Arakistainek. 2005ean Urola Kostako Udala Elkarteak plangintza bat zehaztu zuen lan munduan euskara garatzeko. “Udalaren laguntzarekin galdetu ziguten ea prest egongo ginen euskara plan hori aurrera eramateko. Langileen artean eskaera bazegoenez, enpresa ere animatu egin zen. Baina baldintza batekin: arazorik ez zuela sortu behar. Ez zen inongo trabarik izan eta langile erdaldunek ere ez zuten inongo arazorik jarri. Hasieratik garbi utzi zen ez zela hizkuntza bat kendu eta bestea jarriko. Hala, pausoak ematen joan gara hamaika urte hauetan”.

Elhuyar Aholkularitzarekin egin du GKNk bide hau. “Elhuyar ezinbesteko pieza bat da euskara planetan. Beraiek egin zuten enpresaren diagnostia eta emaitzaren arabera zehaztu zuten plangintza”. Diagnostikoa hark enpresaren erretratua erakutsi zuen, euskara nola zegoen. “Enpresa guztia erdaraz zegoen eta horregatik ez genuen helburu handirik jarri; asmoa erabilera % 25era heltzea izan zen. Eta joan gara betetzen, nahiz eta bidean zenbait *impasse* izan diren”.

Lehen pausoak errazten izan zirela dute gogoan. “Kartelak eta seinaleztapenak aldatu ziren, hizkuntza paisaia deit-

Hitzez, langileak protagonista dituen euskarazko aldizkaria

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, *Hitzez* izeneko aldizkaria atera zuen Zumaiaiko GKNk. Euskara hutsean egindako argitalpen horren lehen zenbakiaren 500 ale atera dira. Langileak beraiek dira edukiaren protagonistak: euskarazko aldizkaria ateratzearen inguruko iritziak, euskara ikasten ari den langile bati egindako elkarrizketa edo urte hauetan, Plana zehaztu zenetik, egindako lanaren inguruko informazioa jasotzen ditu.

“Hasieratik egon da aldizkaria ateratzearen ideia. Bilerara bat egin genuen eta utzi beharrean izan ginenean, edukiaren inguruan zailtasunak genituen eta: zer jarri, zer ez jarri... Enpresa barruko aldizkaria bada ere, helburua ez da enpresaren albisteak ematea. Euskara Batzordeko aldizkariak ezin zuen izan enpresaren bozeramailea”, dio Ianire Floresek.

Abenduaren 3arekin batera atera dute lehen zenbakia, eta oso harrera ona izan duela azpimarratu du Ianirek. “Jendeak oso ondo hartu du. Batzuk harrituta agertu dira. Hemen euskaraz idatzi al daitekeen galdetzen dute. Jendeak euskaraz pixka bat gehiago irakurtzeko balio badu, ederki”.

Urtean hiru zenbaki ateratzea aurreikusten dute, opor garaiarekin lotuta bakoitza. “Aste Santuaren aurretik aterako dugu bat, uda aurretik beste bat eta Gabonen aurretik azkena. Horrela, enpresako kideek egiten dituzten ekintzen berri emateko aukera dugu, eta batzuek proposamenak ere egin dizkigute”.



“Euskararen erabilera sustatzea du helburu aldizkariak. Hilean behin edo lehiaketa txikiak egiten ditugu euskararen inguruan eta erantzuten dutenen artean otar edo afari batzuk zozkatzen ditugu, betiere hizkuntza bultzatzeko. Aldizkaria beste pauso bat da bide horretan”, gehitu du Asier Arakistainek.

zen zaiona. Fase horren bigarren mugarria Hizkuntza Politika Orokorra (HPO) zehaztea izan zen. Enpresa barruan ateratzen zen guztiak izan behar zuen euskaraz eta gaztelaniaz, betiere euskarari lehentasuna emanda. Horrekin batera hasi ziren sistema informatiko berriak ele bitan izaten. Multinazional bera ere hasi zen oharrak euskaraz bidaltzen eta hori bai izan zela lasaitua enpresarentzat. Enpresak izan zitzaizkeen kezkek alde batera utzi zituen”, dio Arakistainek.

GKNk Erresuma Batuan, Birmingham hirian, du zentrala eta ezarrita dagoen estatu edo herrialde bakoitzeko hizkuntzetan bidaltzen ditu jakinarazpenak, baita euskaraz ere. “Kostatu zitzaizgun hori lortzea, baina orain euskara beste hizkuntza bat da taldean, frantsesa edo ingelesa den bezala”, nabarmendu du Iñigo Zalduak, giza baliabideen zuzendariak. Euskararen erabilera handitzeko Txomin Oronoz enpresaren zuzendariak eta Zalduak berak gai honetan erakutsitako babesa txalotu dute Euskara Batzordeko bi kideek.

Mundu mailan lan egiten duen multinazional batean sartutako enpresa izanik, ingelesak indar handia du. “Gehienak hiru hizkuntzatan funtzionatzen du: ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz. Paneli dagokienez, zalantzak daudenean, askotan ingelesera jotzen da, bestela hiru hizkuntzetan jarri

beharko genuke eta”, dio Ianire Floresek. “Lan istripuen inguruko panel handi bat jarri dute eta ingelesez eta euskaraz bakarrik dago”, gaineratu du Asier Arakistainek.

Pertsonen arteko harremanen orduan, pertsonen arabekoa dela diote. “Planarekin hasi ginenean, gutxiengo batek erabiltzen zuen euskara. Orain erdi mailako postuetan dabilzanen arteko bilera batzuk euskaraz egiten dira”, adierazi du Arakistainek. “Nik giza baliabideetan egiten dut lan, eta lehen hizkuntza euskara da. Jendea ari da kontzientziatzen eta euskaraz hitz egiteko eskatzen dugu”, azaldu du Floresek. “Tailerrean, makinetan hitz teknikoak erabiltzerako orduan, gehiago kostatzen da. Gaztelaniazko tornu, euskaraz tornua da, baina rectificadora artezteko makina da”. Bere garaian euskarazko hitz teknikoaren euskal hiztegia atera zuen GKNek berak. Gerora automozioeko euskal hiztegia atera zuten sei enpresak, GKN tartean zela. “Bakoitza bere aldetik ari zen lan egiten eta hiztegi bateratu bat sortzea izan zen helburua”, nabarmendu du Asierrek. “Ohitza da kontua. Euskarazko hitz tekniko horiek asko erabiltzen dira. Hasieran arraroa egiten da, baina gero asko erabiltzen dituzu. Planoetan euskaraz dauzkagu idatzita eta, nahiz eta hasieran erdarara joan, azkenean euskarazkoak erabiltzen ditugu”.

Zumaiako inauterietako kartel lehiaketa

Parte hartu nahi duzu?

Otsailaren 1a bitartean,
bidali zure proposamena!

Sariak:

- Kartel irabazlea: 300€ + inauterietako egitarauaren irudia izango da
- Herritarren saria: bi lagunentzat otordua herriko jatetxe batean

Oinarriak:

- Din A3 neurria (297x420mm)
- 3 proposamen parte hartzaileko

Informazio gehiago www.zumaia.eus



Zumaiako Udala



Urtarrilean

Zumaia txartela erabilia,
edergintzan eta osasunean
gastatzeko **25€**-ko txartelak
lortuko dituzu.



Zumaiako Udala



CAJA RURAL



EUSKO LEGEBILTZARIA
EUSKADIAKO GOBIERNUA

Iñigo **ZALDUA**

GKN Driveline Zumaiako giza baliabideen zuzendaria

“Onenak izaten jarraitzeko, zer egin behar dugun pentsatzen hasi behar gara”

Iñigo Zalduak 19 urte daramatza Zumaiako faktorian lan egiten. Gaur egun giza baliabideen zuzendaria da Zumaiako eta Legazpiko fabriketan. Enpresak bizi duen egoera ona dela dioen arren, aurrerapausoak ematen jarraitzearen aldekoa da.

Zumaiako faktoriak bere kompetentziarik handiena GKN talde barruan duela azpimarratu du, “ez kanpoan”. “Garrantzitsuena taldean bertan ondo kokatzea da. Horretarako, prozesua eta produktibitatea hobetzen joan behar da”. Auto-motzioaren transmisioetan GKNk % 42ko merkatu kuota du gaur egun. “Hau da, zure kotxeak GKNko pieza bat izateko % 42ko aukerak dituzu”. Kopuru hori igotzea oso zaila dela dio Zalduak, “bezeroak berak ez duelako nahi zuk hainbeste garrantzia izatea. Horregatik, GKNk dibertsifikatzeko apustua egin du eta motor elektrikoekin eta kotxeen beste osagaiekin lanean hasi da, betiere, % 42 merkatu kuota hori mantentzeko”.

Krisiaren atarian, taldeak produktuan eta prozesuan eragina izan zuten zenbait neurri hartu zituela du gogoan. “Nire ustetan, neurri zuzenak izan ziren. Lehen, herrialde bakoitzak bere kontura egiten zuen lan eta fabrika bakoitzak bere aldetik eskaintzen zion produktua bezeroari. Arazoak sumatzen hasita zegoen eta GKNk prozesu hori geratzea erabaki zuen; benetako multinazional bat bezala hasi zen lanean. 2000. urterako bezeroarekiko gestioa zentralizatu egin zuen: bezeroak mintzaide bakarra izan zuen ordutik aurrera, eta ez taldeko enpresa bakoitza bere aldetik. Altzairua erostea ere zentralizatu egin zen taldeko fabrika guztientzat. Horren aurrean GKN barruan borrokatu behar izan genuen. Nola? Pertsonengan eta haien ezagutzan konfiantza jarrita, azkarragoak izanez eta pauso bat aurretik joanez. Hori da gure erronka handia. Kostua pertsonako oso handia da Euskadin Poloniarekin, Esloveniarekin edo Indiarekin al-

“Gu serie laburretan eta produktu zailetan eta jendearen ezagutzan espezializatu gara”



deratuta. Hor ez dugu zer eginik; beraz, hitz egin dezagun produktuaren kostuaz. Gu serie laburretan eta produktu zailetan eta jendearen ezagutzan espezializatu gara. Sekulako inbertsioa egin da pertsonengan eta hori kanpotik igarri egiten dute”.

Krisiak eragina izan zuela dio, “ez automozioan bakarrik, baita GKNren kontzeptuan ere. Lehen Amerikarako eta Asiarako lan asko egiten genuen, baina une horretan ikusi genuen Ameriketara egiten zena Ameriketara geratuko zela eta Asian egiten zena Asian. Eta guri Europako merkatua geratuko litzaziguke. GKNk ez du inoiz salmenta kopurua galdu, beti igo da. Kontua da non igotzen den. Europan ikusten zen fabrikak eta produktzioa sobran zeudela. Eta horren aurrean erabaki bat hartu behar izan zuen: zein dago sobran? Oso une gogorra izan zen. Europako merkatuak gora egiten ez zuela ikusita, GKN taldeak EEEda (enplegu-erregulazioeko espedienteak, gaztelaniaz ERE) planteatu zuen fabrika guztietarako. Enpresa batzuk itxi behar ziren eta gurea begi puntuan zegoen. Faktoria bakoitzak bere



“% 100 fidatu behar gara jendean, formakuntza eta informazioa emanez. Zer partida jokatzeko ari garen jakin behar dugu denok, denok gaudelako traineru berean”

plan estrategikoa egin zuen eta gurea oso serioa izan zen. Lehen GKN Driveline Zumaia eta GKN Transmisiones España genituen, biak Zumaian, baita GKN Legazpi eta Bergarako GKN Lazpiur ere. Lau faktoria horiekin enpresa bat sortu genuen: GKN Driveline Zumaia, lanerako bi lekurekin: forja, Legazpin, eta egoitza, Zumaian. Transmisioena eta Lazpiurkoa itxi genituen eta Bergarako langileak Zumaia etorri ziren. Adinagatik aurretiko erretiro batzuk izan ziren. Serie laburretara eta produktu zailetara zuzentzea ere une horretan erabaki genuen. Zumaia langileak irabazitako apustua izan zen, baina denbora baterako; ezin dugu lo hartu”.

Eboluzio horri esker, GKN taldearen konfiantza irabazi dutela azpimarratu du. “GKNk apustu handia egin du Zumaia faktorian. Entseguen departamentu bat dugu, Zumaia fabrikarako bakarrik ez, taldeko faktoria guztietarako lan egiten duena. Transmisioen parte diren juntura finko eta irristagarriak ere Zumaian egiten dira. Gaur egun 20.000 tulipa egiten dira egunean. Horrek esan nahi du norbait 10.000 kotxe egiten ari dela egunean Zumaian egindako materialarekin. Motor elektrikoak garatzeko bost ingeniari ere kontratatu ditugu, GKNren onarpenarekin. Krisi garaian ere enplegua sortu da eta gaur egun 402 langile ditugu Zumaian. Instalazio asko asteko zazpi egunetan, eguneko 24 orduetan ari dira lanean. 50 bat langile ditugu asteburuetan lanean. Taldearen 4.0 enpresa pilotua ere bagara. Beraz, egoera oso ona da, baina onenak eta lehiakorrenak izaten jarraitzeko zer egin behar dugun pentsatzen hasi behar gara. Hori da gure erronka. Taldeko beste faktoria batzuk ez duten esperientzia dugu. Nahiz eta taldeko beste enpresek guk egiten duguna koptiatuko duten, oso aurretik goaz eta horrek lan egiteko eta aitzindari izateko lagunduko digute”.

Langileengan konfiantza edukitzea, informazio osoa ematea eta gardentasuna dira, besteak beste, mahai gainean jartzen dituen faktoreak. “% 100 fidatu behar gara jendean, formakuntza eta informazioa emanez. Zer partida jokatzeko ari garen jakin behar dugu denok, denok gaudelako traineru berean. Hemen denok batera egiten dugu arraunean edo ez dago zer eginik. Hori da urte hauetan izan dugun aldaketa

handiena”. Zentzu horretan, enpresako sindikatuekin duten komunikazioa “gardena” dela azpimarratu nahi izan du. “Denek dakite zer dagoen jokoan eta uneraren batean beraien laguntza behar badugu, badakigu gurekin izango direla”. Bere unean, 2008 hartan lan gatazkak izan zirela baieztatu du, “baina elkar ulertze edo informazio faltagatik ez zen izan, enpresa ixtearen beldurragatik baizik, ixteko arrisku handia egon zen eta”.

Pertsonekin konprometitu daudela dio sarritan. “GKN dirua irabazi nahi duen multinazionala da, noski, baina giza-kiak ahaztu gabe. Bizi garen gizartean zer esana eta zer egin behar duen erakundea gara”, dio Zalduak. Horren erakusgarri Gureak elkartearik duten elkarlana jarri du. “Gureakeko ehun lagun inguruk Bergaran egiten du lan, Legazpiko forjarako. Pertsona horiek GKNrentzat lan ona egiten ari dira”. Inguruko ikastetxeekin ere harreman ona dutela azpimarratu du: “Zarauzko Oteiza, Elgoibarko IMH, Zumaia Institutua... Zerbait berria edo praktikak egin nahi dutenean, ateak zabalik dituzte”.

Gai sozialetan enpresan aurrera doazen ekintzen zerrenda luzea erakutsi du: “Odol emateak egiten dira urtean hirutan faktorian bertan, Janari Bankurako elikagaiak biltzen dira, baita Saharako ere. Orain gutxi erretzeari uzteko kanpaina bat bultzatu dugu eta jangelan bizitza osasungarria izan nahi dutenentzat menu bereziak daude”.

Kilometroen kanpainarekin, berriz, giza erakunderen bat babesten dute urtero. “Fabrikako jendeak asteburuan oinez, bizikletan edo saltaka egindako kilometroak apuntatzen dira astelehenetan. Aurten [2016. urteagatik] 80.000 kilometro inguru egin ditugu. Gero, kilometro horiek diru bihurtzen dira. Langileek diru kopuru bat ematen dute eta enpresak beste hainbeste jartzen du. Iaz 10.200 euro eman genizkion Aspanogi elkarteari eta aurten ELA gaixotasuna dutenak laguntzen dituen Adela elkartera bideratuko da”.

Arlo sozial hori bultzatzearen aldekoa da Zaldua. “Ezin duzu esan pertsonekin konprometitu zaudela gero ez baduzu ezer egiten. Bestela hitz hutsaletan geratuko litzateke guztia”.

Enpresa barruan euskararen erabilera asko igo dela diote. Igoera horretan lantaldea gaztetu izanak zer ikusi handia izan duela diote biek. “Asko aldatu da Eibarko, Ermuko edo herri horietara kanpotik etorritako jendea jubilatuta denetik. 2005ean, euskara sustatzen hasi ginenean, euskaldunak edo euskara ulertzen zutenak % 25era ez ziren helduko. Orain alderantziz da: % 75-80k euskaraz badaki edo ulertzen du guxtienez. Euskara ez da arrotza egiten”. Iritz berekoa da Iñigo Zaldua: “Orain 20 urte arraroa izango zen fabrikari euskaraz egitea; orain, berriz, ez da hala”.

Enpresak berak euskara eta beste hizkuntzak ikasteko erraztasunak ematen dizkie langileei. “Bolada batean, enpresan bertan euskara klaseak eman ziren eta irakaslea etortzen zen hona. Hasiera ona izan zuen, eta 40-45 lagunekin hasi zen. Arazoa zen langile batzuek erreleboak egiten zutelako lan eta ezin zirela klaseetara joan”. Urtebete edo iraun zuen ekimenak, gelditu zen arte. Orain, euskaltegiara joaten denari lagundu egiten dio enpresak. “Hitzarmenean sinatuta dugu edozein hizkuntza ikasi nahi duenari enpresak ordainduko dizkiola klaseak. Lanarekin lotura duen edozein ikastaro ere ordaintzen du”.

Plangintzako lehen zatia amaituta, bigarrenean murgilduta daude orain. “Azkeneko neurketan erabilaren % 40 batean gaude. Hasieran definitutako helburuak bete ditugula esan daiteke. Ez genituen asmo handiak jarri, betegarriak ziren. Orain bigarren zatian gaude eta hor helburuak definitu behar ditugu. Helburua erabilera bada, definitu behar harko da lanpostu bakoitzak zer hizkuntza eskakizuna duen. Orain arte hori ez da zaindu. Adibidez, orain arte bazterrean utzi dugu hornitzaileekin harremanak euskaratzea. Multinazionala izanda, mundu guztiko jendearekin hitz egiten da eta hor normala ingelesa erabiltzea da. Baina ikusiko da administrazioekin egin beharreko harremanak zer hizkuntzatan egin”.

Orain arte egindako lana ondo baloratzen dute. “Erakusten da euskara ez dela lan egiteko oztopoia. Alderantziz, nik uste aberasgarria dela. Elhuyarren ekitaldi hartan esan zen bezala, ‘zuk euskaraz lan eginda, zureago egiten duzu lan hori’. Zure hizkuntza ez den batean egiten baduzu lan, lan hori egingo dut eta kitto. Zure hizkuntzan bada, zureago dela eta zure parte dela sentituko duzu”.

Erreferentia Antzuolara

Plana martxan jartzearekin batera, Euskara Batzordea ere abian jarri zen enpresaren baitan. Batzordea asko aldatu dela dio Asierrek. Bera lehen urtetik da batzorde horretako kide; Ianirek, aldiz, lehen urtea egin du batzordekide. “Langileen eskaera bat zen”, du gogoan Asierrek. “Enpresak ez zuen oztoporik jarri, baina aurrerapausorik ere ez zuen eman. Mankomunitateko proposamenaren ondoren, 2005. urtean sortu zen Euskara Batzordea. Hasieran, sindikatuetako lau lagunek (sindikatu bakoitzetik banak) eta enpresako beste lau lagunek osatzen zuten. Baina Euskara Batzordea ez da fronte bat edo negoziatio mahaia. Denok

egon behar genuen gure borondatez eta batek gogorik edo borondaterik ez bazuen, ez zuen zertan egon. Erabaki zenean parte hartzea borondatezkoa izango zela, beste jende bat hasi zen sartzen”.

Asierrek onartzen du Batzordearen lehen lan haiek enpresa barruan zabalpen handirik ez zutela izan. “Enpresako lehen pausoak zirenez, mugatu xamarrek ziren.

Lan errazak ziren, karteldegia aldatzea, adibidez, baina, kartel haiek aldatu genituela ikusten bazen ere, sekzio askotan ez zekiten Euskara Plana edo Euskara Batzordea zegoenik. Ondorioz, erabaki zen sekzio bakoitzetik kide batek egon behar zuela Batzordean. Orain hala gaude, hamar bat lagun gaude, sekzio bakoitzetik bana. Aurten lehen aldiz, lana lantaldeka banatu dugu: batzuk komunikazioaz arduratzen dira, beste batzuk hizkuntza paisiaz, etab. Gero koordinatu egiten gara”.

Euskararen bidaia honetan, Zumaia-koek badute aitzindari bat: Antzuolako Elay enpresa. “Haiek 22 urtez izan dute Euskara Batzordea.

22. urte hori orain bi urte izan zen. Erabaki zuten beraien lana bete zutela. Orain sekzio bakoitzean euskaraz egiten da; enpresa horretan lan egiteko euskara jakitea ere beharrezkoa da. Esan dezakegu enpresa bakarra dela zehaztutako plangintza % 100 bete duena. Erreferentia da eta saiatuko gara haiengana hurbiltzen. Badakigu zaila izango dela % 100 euskaraz egitea, baina nahi duenak euskaraz egin, aukera hori izango du”. ■



“Zure hizkuntza ez den batean egiten baduzu lan, lan hori egingo dut eta kitto. Zure hizkuntzan bada, zureago dela eta zure parte dela sentituko duzu”

BALEIKEk kazetaria behar du

BEHARREZKOA:

- Kazetaritza, komunikazio edo ikus-entzunezkoetan ikasketak, edo kazetaritzan trebatua.
- Euskara menperatzea.
- Sare sozialak eta kazetaritza digitala menperatzea.
- BI gidabaimena.

BALORATUKO DA:

- Argazkigintza eta bideogintza menperatzea.
- Beste hizkuntzak.
- Dinamikoa izatea.
- Taldean lana egiteko gaitasuna.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Paperezko produktueterako eta webgunerako lana.
- Lanaldi erdirako.
- Epealdi jakin baterako lana.

Interesatuak bidal ditzala curriculuma, aurkezpen-gutuna eta bestelako jakingarriak **aldizkaria@baleike.eus** helbidera, urtarrilaren 22a baino lehen.

Baleike Kultur Elkarte
Odieta kalea 2, 20750 Zumaia
943861545
Baleike.eus



Zalla
ZUMAIA

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASOIA 12
20750 ZUMAIA
Tel: 943861018 / Fax: 943016175



Zumaia Hotela
Jatekera
Kalestegia

Alai auzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



EuroTaller
ZUMAIA MOTOR S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net



Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057

www.eduoptika.com

EDU
ZUMAIARD
OPTIKA

RPS 18/16

BOSCH
LEHORGAILUA
WTW85202EE

49,92€

12 hilabetean

8 kg

A++

599€



3. Bandeja

399€

33,25€

12 hilabetean

Normala

349€

29,09€

12 hilabetean

BALAY
ONTZI GARBILAILUGA
3V5572BP
3V5503BA

BOSCH
GARBIGAILUA
WAQ24368ES

399€

8 kg

1.200 bira/min

A+++

33,25€

12 hilabetean



URTARRILEAN

Ordaindu 12 hilabetean interesik gabe

EDESA
GARBIGAILUA
HOMEL8212D

8 kg

1.200 bira/min

A+++

29,09€

12 hilabetean

349€



8 kg

1.200 bira/min

A+++

INOX

549€

45,75€

12 hilabetean

Zuria

449€

37,42€

12 hilabetean



BOSCH
GARBIGAILUA
WAQ2448XES
WAQ24468ES



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com

Zerbait
ikusgarria
egitera
goaz...